

Durangoko bihotzean, haurtzaroaren alaitasuna eta euskal familien esentzia ospatzeko diseinatutako espazio bakar bat sortzen ari da: JauJa Txikiparka. Parke hau ez da soilik jolaslekua, euskal kultura aberatsaz ohartzeko eta sustatzeko pentsatutako dibertimenduzko gunea baizik. Txikiparka gunea aberasgarria da, eta bertako euskal komunitateak Durangon duen kulturarekin topo eginez.

## **INGURUNE EUSKALDUNA**

Gure Txikipark hau jolas gunea bat baino askoz gehiago da; gure euskal kultura eta hizkuntza sustatzen den lekua da. Egitura, joko eta jarduera bakoitza zehatz-mehatz diseinatu dira gure kultur ondare aberatsa zaintzeko. Hemen, haurrak dibertimenduan murgiltzeaz gain, euskara modu positibo batean entzuten den ingurune batean murgilduko dira. Abestien, ipuinen eta jolasen bitartez, euskal hizkuntza elikatu eta sustatzen da, jolas une bakoitza gure sustraiekin ditugun loturak sendotzeko aukera bihurtuz.

## **BERRITZAILEA ETA ESKURRAGARRITASUNA**

Euskal Herriko eremu honetan bakarra da eta horrek Durangaldeko Txikiparka bihurtzen du. Dibertsioa eta ikaskuntza modu paregabean uztartzen diren parke batean. Txikipark berri honek behar handi bat bermatzen du Durangaldean, azken batean horrelako eremurik ez dagoelako eta haurrentza espazio positibo eta gozatzekoa delako.

Gure kokapenaren aukeraketa, berritasunean ez ezik, irisgarritasunean ere oinarritzen da. Estrategikoki kokatuta gaude sarbidea errazteko eremu batean, guztientzat irekia dagoena. Gure kokapenari esker oinez zein autoz irits daiteke, eta, gainera irisgarritasuna dugu garraio publikoaren bidez, autobusa eta trena barne. Sartzeko erraztasun horrek bermatzen du haur eta familia bakoitzak, bere kokapenaren gorabehera, arazorik gabe gozatu ahal izango dutela esperientzia paregabe horretaz, gure Txikiparka eskualdeko gozamenaz eta ikaskuntzaren bihotz irisgarri bihurtuz.

## **DENEN POLTSIKOETARAKO**

Haur bakoitzak kezkarik gabe dibertitzeko aukera izatea nahi dugu. Horregatik, gure prezioak oso eskuragarriak dira familia guztiak dibertsiora batu ahal izateko.

Baina hau ez da dena. Gure ustez, familia batzuek laguntza gehiago behar dute. Horregatik, laguntza programak eta bekak eskaintzen ditugu, zailtasun ekonomikoak dituztenek ere goza dezaten. Dibertsiorako eta ikaskuntzarako sarbidea ez da diru kopuruaren araberakoa izango, elkarrekin partekatu ditzakegun irribarreen araberakoa baizik.

## **HEZIKETA GUNEA**

Haurrak jolasean irribarrez ikustea ez ezik, jolasa ikasteko tresna bihurtzen den espazioa eskaintzea ere beharrezkoa ikusten dugu. Jarduera ludiko sorta zabala eskaintzeaz gain, guraso eta zaintzaileentzako hitzaldi eta tailerretarako gunea dugu. Hemen, elkarrekin aztertzen dugu jolasaren bidezko hezkuntzaren garrantzia eta horrek nola eragiten duen haurren garapen kognitibo, emozional eta sozialean.

Gure helburua dibertimendu une bakoitza ikasteko aukera bihurtzea da, bai haurrentzat, bai haiekin doazen helduentzat. Saioetan ingurune ludiko batean sormena, arazoek konponbidea eta interakzio soziala sustatzeko estrategiak lantzen dira.

Ikasteko espazio hori eskaintzean, familia loturak zein zaintzak sendotu nahi ditugu esperientzia partekatuen bidez, non dibertsioa ezagutzarekin lotzen den. Gure ustez, jolasa eta hezkuntza uztartzeak haurren haurtzarora aberasteaz gain, belaunaldien arteko zubiak ere eraikitzen ditu, guztiontzako konexio eta ikaskuntza une esanguratsuak sortuz.

## **FAMILIA KIDEEN KARGUA SAIHESTEA**

Jakitun gara senide batzuentzat erronka handia izan daitekeela haurren kargu egitea beste jarduera batzuk egiten dituzten bitartean. Azpimarratzekoa da adieraztea une askotan gurasoek denbora falta handia dutela, eta haurren zaintza aitona-amonen esku geratzen dela, eta hau saihestea da gure helburua bizi kalitatea sustatzeko. Horregatik sortu dugu haurren jolaserako eta zaintzarako berariaz diseinatutako espazio bat.

Gurasoek haurren zaintza bere gain hartu ezin duten momentuetarako gure erakundearen konfiantza osoa izan dezakete. Bertara ekarri dezakete haurra, giro segurua eta dibertigarria eskainiz.

Gure bisitariak seguru eta lasai sentitzea nahi dugu, beren txikiak dibertsioa eta zaintza eskutik doazen leku batean daudela jakinda, beren bizitzako beste alderdi garrantzitsu batzuei erantzuteko denbora eta energia askatzeko aukera emanez.

Laburbilduz, familia guztiontzako espazio aproposa da, gozamina, irisgarritasun ekonomikoarekin eta gure euskal sustraietara hurbilduz. Gure konpromisoa txikienei tokirik onena eskaintzea da, prezio eskuragarriekin eta laguntza programekin batera, esperientzia honetatik kanpo haur bakar bat ere geratuko ez dela ziurtatuz. Gainera, ez da jolas parke bat bakarrik, kultura eta ikaskuntza elkartzen diren gune bat da, gurasoei eta haurrei elkarrekin hazteko aukera eskainiz, jolasaren bidez hezkuntzaren garrantzia aztertzen duten bitartean. Txikiparka dibertsio inklusiboaren, etengabeko ikaskuntzaren eta euskal familien bihotzaren egoitza da.